

IDIA ELIZAN

Aztu eztedin, beren oroitza osoro joan eztakigun, jakinza-leak geiagorako ikasbidea izan dezaten, ongi deritzot Euskal-erriko oitura zar bat albistatzea.

Oiezbezelakoa da, ipuia dirudi, ta siñisgogorra izandu naiz, baño gaur ordea neronek baieztu nai det, neronek nai nuke siñisterazi.

Ogeitak urteak badira. Arako jai arratsalde baten, apeta betetzeko era banualata, Oikia deritzon gure auzotegira pozarren joan nintzan. Ta ona emen nere begietan aurkeztu zitzaidan ikuskizuna.

Elizarako sarreran, ate ondoan burua jarririk, ts̄int̄sarriz ondo jantzia, apaiz jaunaren soñeko beltzez eztalia, paparrean bera purpūsetaz apaindua, adar bakoitzean ogi andi bana zitu-tuala, idi gizen bat zegoan geldi ta mentsu, eliz barruko eresi-ketak entzuten bezela.

¿Zer zan idi ura? Ildakoen alde egiten zan oparia, une artako elizkizunaren sari ta ordaña.

—¿Noiztikoa da ekandu au?— galdetu nuan, arriturik.

—Antziñetakoa noski— erantzun ziraten— asabietatik aspaldi luzean datorrena.

—¿Nondik ote dator? ¿Okerreko siñistien kutsurik ez ote dauka?

—Baliteke, baño ezetxean gaude. Jatorri bakunagoa duala uste degu.

—Ager zadazute.

—Ezta orren gaitza. Nola eskuartean lenago gaur beste diru etzebillen, lurraren ematzaz, ale ta aragiz batez ere saritu oigenduan apaizen nekea. Iru malletako illeta ziran: lenbizi-koan idie eskeñi oizan; bigarreanean, zikirio bat, eta irugarre-

nean laka batzuek arto edo gari. Gaurko idiak illetarik andiena oroitzen digu.

Ori aditu nuan, ta beste asterketa gabe, it̄surazko mintzoa zalata, atseginez gelditu nintzan. Gañera berriz, esate orren ziurgarritzat, oraindik or dago, Aizarnazabalgo *pulpito*-pean, zikirioa isekitzeko burni-kako sendoa, ta, Arruako eliz-obietan, sarri egondu naiz gari zorro ederrak ikusten.

Abere-opariak aztu zaizkigu ia, baño gure egun auetan ere azaldu izan dituzte noizean bein, andikeriz ta norbere jatorri ona erritarrai jakin erazteko. Oikiako apaiz jaunak, aitaren elizkizunean, oitura zarren gomutarako edo goitarra zala erakuzteagatik, ipiñi zuan beintzat idi galanta eliz atarian.

Azkenengoa ote zan? Eztet arrazkero inguruetan besterik somatu.

DOMINGO DE AGUIRRE.

Zumayan 1917-ko Agorraren 16-an.

